



Euskarazko lehen kalkulagailuaren erabilera sustatzearen alde lanean

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Erabileran dago gakoa
- "Ondo ibili, ondo izan" berriro ere martxan
- Udazkeneko eskaintza kulturala APP berrian
- Euskarazko lehen kalkulagailuaren erabilera azaltzeko saioak antolatu ditu Udalak
- La incubadora Anezka cuenta con una ocupación del 75%


BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → X. Igartzako dantzarien kofradiaren eguna
- XIX. Igartza literatura-sorkuntzarako beka
- Beasainmendiko jaiak
- Futbol festa
- Igartzako jaietako lasterketak

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Mintzalagun programa

URRIAN BEASAINEN...



GUTUNA

Aitor Aldasoro
Beasaingo alkatea



ERABILERAN DAGO GAKOA

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez duelako, dakienak erabiltzen ez duelako baizik" zioen Joxean Artzek eta hain zuzen ere, horixe da euskarak duen erronkarik handiena.

Ezin ezikusirik egin azken hamarkadetan gure gizarteak euskararen ezagutza dela eta eman dituen aurrerapausei. Gero eta haur, gazte eta heldu gehiagok daki euskaraz; ordea, oraindik euskaraz bizitzetik urrun gaude. Geroz tarte handiagoa dago erabilera eta ezagutzaren artean. Gure hizkuntza mantendu eta babesteko erabili egin behar dugu, eta erabilera sustatzeko, euskarazko baliabideak areagotu behar ditugu, egunen batean euskara hutsean bizitzeko aukera benetakoa bihur dezagun.

Horregatik, niretzat, beasaingar naizen aldetik, euskaraz egindako lehen kalkulagailuaren sorreran parte hartu izana ohorea da. Arriskua hartu genuen, eskuliburua itzuli genuen proiektuak aurrera egingo zuen ala ez jakin gabe; alabaina, hortxe dugu emaitza.

Euskararentzat lorpen handia da esparru eta mundu digitalean egotea eta pentsa! Kalkulagailua piztu eta euskara, gaztelania, ingelesa eta beste edozein hizkuntzaren parekoa izatea lortu dugu. Ukaezina da euskararen normalizaziorako aurrerapauso galanta dela, teknologiek gero eta indar handiagoa baitute bizi garen mundu eta gizarte honetan. Hor egotea eta gure hizkuntza, gure ama hizkuntza, euskara, hor kokatzea harro egotekoa da.

Tresna badugu, baina orain erabilera da indartu eta sustatu behar duguna. Euskararekin gertatzen den moduan, hizkuntza jakin badakigu, tresna ere sortu berri dugu, baina erabileran dago, hain zuzen, gakoa. Dabilen harriari ez baitzaio goroldiorik lotzen.

La clave está en fomentar su uso

La clave para la normalización de cualquier idioma reside en fomentar su uso y en crear herramientas que permitan a la población desarrollar su día a día en dicho idioma. Recientemente se ha creado la primera calculadora en euskera lo cual ha permitido abrir un nuevo frente en lo que respecta a las TIC. Sin lugar a dudas, haber participado en la creación de la primera calculadora en euskara es todo un honor para mí.

"Ondo ibili, ondo izan" berriro ere martxan

Irailaren 29an eman zitzaion hasiera "Ondo ibili, ondo izan" ibilbide osasungarrien txanda berriari.

Ekimen honek helburu du zahartze aktiboa eta adineko pertsonen ongizatea sustatzea. Horretarako, astero-astero irteerak antolatzen dira adineko pertsonak jarduerara fisikoa egiteko aukera izan dezaten. Proiektu honi esker, gero eta gehiago dira, lagunartean, ibilaldiak eginez osasun fisiko eta psikikoa zaintzen duten adineko beasaingarrak.



Udazkeneko eskaintza kulturala APP berrian

Urtero bezala, udazkena kultur ekitaldiz betea datorkigu. Azaroa bitartean, beasaingarrek zer ikusi eta non gozatu izango dute. Publiko guztien gustuak asebeteko dituen egitarau zabala antolatu da aurtengoan ere.



Beasaingo txoko eta gunen desberdinetan aurrera eramango diren kultur eta kirol ekitaldiak ezagutzeko, gainera, aurten aplikazio berri bat jarri du martxan Udalak. Egunez-egun edota gaika sailkatuta, bertan aurkitu ahal izango dira ekintza guztiak eta horien gaineko informazio osoa.

Beasain Kultura APP berria eskuratzeko:



Euskarazko lehen kalkulagailuaren erabilera azaltzeko saioak burutu ditu Udalak



Ekainean aurkeztu zen Casioaren euskarazko lehen kalkulagailua. Beasaingo Udalak bere gain hartu zuen eskuliburua euskaratzeko konpromisoa eta ardura. Konpromiso berari helduta, orain, euskarazko lehen kalkulagailu zientifikoaren erabilera azaltzeko eta sustatzeko saio desberdinak antolatu dira.

Horregatik, euskarazko lehen kalkulagailuaren erabilera indartze eta hedatze aldera, Udalak 2 ikastaro burutu zituen Igartzan irailean. Horietan, Goierri eta Tolosaldeako DBH eta Batxilergoko irakasleek parte hartu zuten eta tresna berriak harrera oso ona izan zuten partaideen artean.

Con el objeto de fomentar el uso de la primera calculadora en euskera, el Ayto. de Beasain, que también participó en su creación, ha organizado, ahora, varios cursos prácticos para explicar su funcionamiento. Han participado en los talleres profesores de distintos centros educativos de Beasain y de la comarca. Ahora serán quienes se encargaran de transmitir y explicar el uso de la nueva calculadora científica en su versión en euskara al alumnado.

La incubadora Anezka cuenta con una ocupación del 75%

Enplegua sustatzeko xedez, Beasaingo Udalak eta Goiekik elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horren baitan sortu zen Anezka ekintzaile berrientzako egoitza. Duela hilabete gutxi martxan jarri bazen ere, dagoeneko %75eko okupazioa dauka, beraz, zerbitzu enpresetara zuzendutako gune berriak harrera ezin hobea izan du.

A pocos meses de su apertura, la nueva lanzadera para personas emprendedoras situada en Kale Nagusia, ya cuenta con una ocupación del 75%.

Esta incubadora, que tiene como objeto favorecer la creación de empresas innovadoras ligadas al tercer sector, es el resultado de la colaboración entre el Ayto. de Beasain y Goieki en su afán de impulsar y apoyar la creación de empleo.

De las cuatro oficinas disponibles, 3 ya han sido ocupadas con proyectos como el de Mecoach que ofrece servicios de coaching personal, ejecutivo y empresarial o el proyecto National Nederlande, un servicio de asesoramiento financiero, de venta de seguros, contabilidad, gestión personal y atención de clientes para la zona de Goierri y Urola.

El pasado mes se incorporaron al centro las personas ganadoras del concurso de proyectos empresariales que organiza Goieki, pero el centro sigue manteniendo sus puertas abiertas a nuevas propuestas innovadoras que ofrezcan un valor añadido a Beasain y a la comarca del Goierri.



IRAILA BEASAINEN



X. Igartzako dantzarien kofradiaren eguna




XIX. Igartza literatura-sorkuntzarako bekaren irabazlea: Ekaitz Goienetxea





Beasainmendiko jaiak

BEASAIN,
HERRI BIZIA



2016ko Beasaingo Futbol Festa

• BEASAINDIK •



Igartzako IV. mendi duatloia

MINTZALAGUN PROGRAMA

**Hartu-emanak,
hizkuntzaren alde**

Mintzalagun egitasmoak urteak daramatza martxan Beasainen. Programa honek euskararen erabilera sustatzea du xede eta horretarako, astean egun batez eta ordu betez, euskaraz hitz egiteko taldeak antolatzen dira. Hizketan trebatzeko beharra eta gogoak duten herritarrek eta euskaraz hitz egiteko ohitura eta aurrekoei laguntzeko borondatea duten boluntarioak batzen ditu egitasmo honek.

Bataz-beste, urtero, 35 lagunek parte hartzen dute programan eta horiek talde ezberdinetan banatzen dira. Dagoeneko izena eman duten partaide batzuk badira, baina zabalik da oraindik, urriaren 14ra bitarte, izena emateko epea.

**PROGRAMAN PARTE HARTZEN
DUTEN 3 KIDEREN TESTIGANTZA****JOXEPI IZTUETA****Noiz eta zergatik hasi zinen Mintzalagun egitasmoan parte hartzen?**

Duela 5 urte inguru hasi nintzen, Udal Euskaltegiok proposatuta. Euskara nire hizkuntza da, zerbait oso nirea eta euskararen alde zerbait egin nahi nuelako.

Zenbateko taldeak osatzen dituzue eta nolakoa izaten da lehen kontaktua?

Azken boladan lagun batekin aritu naiz, baina aurreko urteetan 2 edo 3 lagunekin.

Nola aukeratzen dituzue hizketaldietarako gaiak?

Erraza da. Beti dago gertatu den zerbait. Etxeko gauzak, gure bizitzako kontuak, natural sortzen dena. Konfiantza sortzen da eta askotan ordubetez aritu beharrean 2 orduz aritzen gara lasai-lasai.

Zer da eskaintzen eta jasotzen duzuen?

Eskaini, hizkuntzan konfiantza hartzen laguntzen saiatzen naiz. Jaso, asko: esker ona, adiskidetasuna...

Konplizitate eta adiskidetasunik sortzen al da zuen artean?

Bai, noski. Lagun handiak egiten dira. Harreman bereziak sortzen dira eta esker ona ere bai.

Ikasleen bilakaera antzematen al da ikasturte bukaeran?

Bai, hasi beritan, batez ere. Hasieran, gutxi hitz egiten dute eta bukaeran hitz egiteko gauza izaten dira. Batez ere, maila baxuagoa daukatenekin askatzen laguntzen diegu.

Beraz, esperientzia gomendagarria dela esango zenukete, ezta?

Bai. Guri ez zaigu ezer kostatzen hori egitea eta beraientzat laguntza handia izaten da. Beraz, bi helburu betetzen ditugu, alde batetik, euskara hobetzen laguntzen dugu eta, bestetik, ikasi nahi duenari laguntzen diogu.



JOXEMI COBOS

Noiz eta zergatik hasi zinen Mintzalagun egitasmoan parte hartzen?

Ez dut zehazki gogoratzen, baina 4-5 urte izango dira hasi nintzela. Udal Euskaltegian eskaini ziguten parte hartzeko aukera, eta ideia oso ona iruditu zitzaidan.

Zenbateko taldeak osatzen dituzue eta nolakoa izaten da lehen kontaktua?

Lehendabiziko urtean 4 pertsona ginen. Hurrengoetan 3 kide ibili gara taldean. Udal Euskaltegian nenbela hasi nintzen eta hurrengo urteetan telefonoz izan dugu kontaktua.

Nola aukeratzen dituzue hizketaldietarako gaiak?

Astelehenetan elkartzen garenez, aurreko asteko gertakariez hitz egiten dugu.

Zer da eskaintzen eta jasotzen duzuen?

Nire konpromisoa eskaintzen dut eta euskaraz hitz egin eta jende berria ezagutzea jasotzen dut.

Konplizitate eta adiskidetasunik sortzen al da zuen artean?

Laguntasuna sortzen da, bai. Adibidez noizbehinka elkartean biltzen gara, afari batzuk egin ditugu eta beste giro batean euskaraz hitz egiten dugu.

Egun, euskaraz gehiago egiten al duzue?

Bai, hasi ginenean baino gehiago.

Beraz, esperientzia gomendagarria dela esango zenukete, ezta?

Bai, oso gomendagarria iruditzen zait.



MAIXEL YAÑEZ

Noiz eta zergatik hasi zinen Mintzalagun egitasmoan parte hartzen?

Gutxi gora behera, duela lau urte hasi nintzen mintzalagun egitasmoan parte hartzen, mintzapraktika egiteko eta, era berean, hitz egiterako orduan segurtasun gehiago lortzeko.

Zenbateko taldeak osatzen dituzue eta nolakoa izaten da lehen kontaktua?

Gu normalean lau pertsona elkartzen gara eta ilusioz joaten gara. Oso atsegina izaten da gure lehen kontaktua.

Nola aukeratzen dituzue hizketaldietarako gaiak?

Egunerokotasunari buruz aritzen gara, gertatzen diren gauzak aipatzen ditugu.

Zer da eskaintzen eta jasotzen duzuen?

Eskaintzen didana zera da, alegia, euskaraz hitz egitea inguru lasai batean. Eta jasotzen dudana, berriz, euskaraz nola moldatu ikasi, esperientzia...

Konplizitate eta adiskidetasunik sortzen al da zuen artean?

Bai, talde txikia garenez konplizitatea eta adiskidetasuna sortzen da.

Egun, euskaraz gehiago egiten al duzue?

Bai, gero eta gehiago egiten dut.

Beraz, esperientzia gomendagarria dela esango zenukete, ezta?

Bai, esperientzia oso gomendagarria da.

**KZ gunea IKASTAROAK****Urruneko formakuntza** *Formación a distancia*

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Sare Sozialen bitartez komunikatu zaitez <i>Comunícate a través de las Redes Sociales</i>	2016.10.03	4 aste 4 semanas
Google aplikazioak gestio pertsonalerako <i>Aplicaciones Google para la gestión personal</i>	2016.10.03	4 aste 4 semanas
Instagram	2016.10.10	2 aste 2 semanas
Salerosketa seguruak internet bidez <i>Compra y venta segura por Internet</i>	2016.10.10	2 aste 2 semanas

Ikastaro presentzialak *Cursos presenciales*

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Oinarrizko Internet <i>Internet básico</i>	2016.10.17	20h (09.00-11.00)
Libreoffice (euskara)	2016.10.17	20h (18.00-20.00)
Google Apps	2016.10.03	16h (16.00-18.00)
Sare sozialak <i>Redes Sociales</i>	2016.10.17	8h (16.00-18.00)

Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus**ONDO IBILI, ONDO IZAN IRTEERAK**

Urriak 6, 13, 20, 27 | ostegunak

10:00 | San Martingo estatuan**EDOSKITZE ASTEA****Irriargi Elkarte:**

Urriak 8, larunbata

Loinazko San Martin plaza azpian

10:30 Edoskitze Festa 12:30 Ipuin kontaketa

Urriak 17-30

Igartzako Monumentu Multzoko Burdinolan

Argazki erakusketa

MENDI IRTEERAK | SALIDAS MONTAÑERAS**Aizkorri Mendizale Elkarte**

Urriak 2, igandea

8:00 | Otzaurte-Aizkorri-Beasain

Urriak 16, igandea

8:00 | Beasain-Zegama**Arrastaka Mendi Taldea**

Urriak 7, 8, 9 | ostirala, larunbata, igandea

Vignemale

Urriak 29, 30, 31 | ostirala, larunbata, igandea

Almanzor**EMALEGEZ**

Urriaren 14ean, 20:00etan

Beasaino Usurbe antzokian

Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperan

Amaia Zubiria
 Karlos Gimenez
 Uxue Alberdi Estibaritz
 Eneko Balerdi
 Ainhoa Alberdi Gisasola
 Yoseba Peña
 Elixabete Manterola Telleria

Beasaino Udala
Berdintasun saila

Beasaino Udala

Lege gordailua SS 403-2016